


**NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA EH BILDU-NAFARROA TALDE  
PARLAMENTARIOAREN ARTEKO AURREKONTU-KONPROMISOETARAKO  
AKORDIOA, 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege  
proiektua dela eta**



**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** 2020ko urtarrilaren 24an Nafarroako Gobernuak eta EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioak zenbait akordio sinatu zituzten 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua zela eta. Bertan bi aldeek konpromisoak jaso ziren.

**BIGARRENA.-** Azken asteetan Nafarroako Gobernuaren eta EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioaren ordezkariak bilerak eta elkarrizketak egin dituzte, 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei begira beste konpromiso-akordio bat lortzeko ahalbideak aztertzeko.

Elkarrizketa horietan balantze bat ere egin da, ea zenbateraino bete diren 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren onespenerako egindako akordioak. Aldeek egiaztatu dute betetze-maila askotarikoa izan dela, COVID-19 izurriak eragina izan duela ez-betetzeetan, eta bete gabeko ataletako batzuk 2021erako Aurrekontu Orokorretarako balizko akordio batean jaso litezkeela, bai eta beste ekintza batzuk ere, 2020ko urtarrilaren 24an sinatutako akordioen ingurukoak.

**HIRUGARRENA.-** Elkarrizketetan 2019ko abenduaren 13ko akordioen betetze-maila ere baloratu da. Aldeek akordio horiek sinatu zituzten Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua zela eta (10-19/LEY-00014). Bada, egiaztatu dute zenbait konpromiso oraindik gauzatu gabe daudela, baina aitortu dute, bestalde, COVID-19 izurriak eragin handia izan duela Nafarroako Gobernuak sinatutako konpromisoetako batzuk aurrera eramateko garaian.



**LAUGARRENA.-** Aldeek azken asteetan izan dituzten elkarrizketetan egiaztatu ahal izan dute nola garai zail hauetan inoiz baino beharrezkoagoa den asmo handiz jokatzea, pertsonengan pentsatuz eta erantzukizunak hartuz, nafarren premiei erantzutea izanik jardunaren helburu nagusia.

Horregatik uste dute borondate irmo horren oinarrian jarri behar liratekeela zenbait irizpide eta printzipio, bi aldeok funtsezko eta ezinbestekotzat jotzen ditugunak Covid-19 izurriaren ondorioei aurre egiteko eta herritarren bizi baldintzak hobetzeko, batez ere langileenak eta pertsona behartsuenak.

lido horretan badira gako batzuk bete-betean partekatzen ditugunak testuinguru sanitario, ekonomiko eta sozial honetan, zeren, proiektua prestatzeko aurrekontu-lehentasunak zehazterakoan erabakigarriak izateaz harago, aurrekontu orokorren eta politika publikoen ardatz eta gidalerro izan behar baitute hurrengo urteetan:

1.- Krisiari aurre egitea gizartea aintzat hartuz eta inor atzean utzi gabe. Alegia, aurreko krisian hartu zen norabidearen kontrakoan.

2. Erakunde publikoek zerbitzu publikoak indartzeko konpromiso hartzea eta zainketen eta gizarte babesaren aldeko apustu irmoa egitea.

3. Baliabide gehiago osasunerako, hezkuntzarako, gizarte eskubideetarako eta enplegu politiketarako. Arlo horietan jaso behar lukete 2021erako aurrekontuaren gastu-sabaiaren igoeraren zatirik handiena, Europako funtsen aplikazioa alde batera utzita.

4. Lurraldeetako azpiegituretarako baliabideak lehenestean, aintzat hartzea pertsonen beharrak, errentagarritasun soziala eta kohesioa, are gehiago izugarritzko aurrekontu-defizita dagoen honetan.

5. Ingurumen jasangarritasunerako politiken aldeko apustu argia eta irmoa.

6. Egungo krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa gainditutakoan zerga politika birpentsatzeko konpromisoa, justizia sozialerantz eta baliabide propioen sorrerarentz aurrera egiteko.

**BOSGARRENA.-** Bi aldeek, egin dituzten elkarrizketa eta eztabaida saioetan, beren jarrera agertu dute, esanez beharrezkotzat jotzen duten edo ez Nafarroako zerga araudi propioan aldaketa garrantzitsuak egitea une hauetan eta krisi egoeraren aurrean. Eztabaida eta iritzi truke horien ondoren alde bakoitzak bere jarrerari eusten dio Nafarroako zerga sistemaren balizko aldaketek izan behar luketen intentsitateari buruz, eta azkenik esan dute aurrera eramanen direla geroago zehaztuko diren akordioak.

Horren haritik, 2020ko azaroaren 4an egindako Gobernu Bilkuran Zerga Aldaketei buruzko Foru Legea onetsi zen, eta nabarmendu nahi da bi aldeek hor sartu zituztela neurri hauek, besteak beste:

a) Deklaratzea maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuak ezarritako bizitzeko gutxieneko diru-sarrera salbuetsita dagoela, errenta bermatua salbuetsita dagoen bezala.

b) Iaz fiskalitateari buruz sinatutako akordioetako bat betez –modulukako zenbatespen objektiboaren tributazio sistema aztertzea, hura kentzeko modua bilatzeko–, enpresa eta lanbide jardueren etekin garbia zehazteko zenbatespen objektiboaren araubide horren ezabaketa jaso da, pertsona fisiko diren enpresaburuen tributazioa gehiago hurbil dadin haien jardueraren egiazko etekinetara.

c) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan, gizarte aurreikuspeneko sistemetarako enpresa-ekarpenengatik zerga-oinarriaren zati orokorrean egin daitezkeen murrizketaren gehieneko mugak aldatzea.






d) Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean jasotzea debeku dela erregularizazio fiskaleko ezohiko edozein mekanismo ezartzea baldin eta zerga zorraren zenbatekoa txikitzea badakar eta, beraz, zerga sistemaren antolamendua gidatu behar duten printzipioak urratzen baditu: ahalmen ekonomikoa, berdintasuna eta progresibitatea.

e) Zerga iruzurraren aurkako neurri gehiago ezartzea, Kontseiluaren uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren behin betiko transposizioa eginez; zuzentaru horrek barne merkatuan zuzeneko eragina duten saiheste fiskaleko

jardunbideen aurkako arauak ezartzen ditu (Saiheste Fiskalaren aurkako Zuzentaraua edo ATAD).

**SEIGARRENA.-** 2020ko azaroaren 4an egindako Gobernu Bilkuran 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege aurreproiektua onetsi zen. EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioak aurrez aurkeztutako hainbat ekarpen eta gastu-proposamen sartu ziren aurreproiektuan, hark eskatu baitzuen aurreproiektuan jaso zitezela. Zehazki, honako hauek jaso dira:

DEPARTAMENTUA	Partidaren izena	Zenbatekoa	Helburua
<b>EKONOMIA ETA OGASUNA</b>			
100000 10100 4459 923900	Suspertu Plana. Finantzen Nafar Institutua	50.000	Partida berria, xedetzat duena 2020ko akordioari jarraipena ematea eta entitatea eratzeko lehen urrats eraginkorra egitea.
<b>LURRALDE KOHESIOA</b>			
210001 21300 7609 261614	Suspertu Plana. Hitzarmena Ziordiko Udalarekin, kaleak konpontzeko (zoladura eta azpiegiturak))	175.000	Presaz egin beharreko jarduketa.
210001 21300 7609 456107	Suspertu Plana. Hitzarmena Uharte Arakilgo Udalarekin goi hornidurako sarea zaharbertzeko.	180.000	Presaz egin beharreko jarduketa.
210001 21300 7609 458113	Hitzarmena Tafallako Udalarekin Errekoletetako proiektua egiteko	175.000	Errekoleten Komentuaren zaharberrikuntza integralerako proiektua egitea
220002 22100 6010 453220	Suspertu Plana. Irurtzungo saihesbidea	250.000	Partidaren zenbatekoa, guztira: 700.000
220002 22100 6010 453221	Suspertu Plana. NA-4150 errepidea hobetzea	100.000	Bihurguneak kentzea Goizuetako errepidean, bereziki arriskutsua balta.
220002 22100 7609 451200	Suspertu Plana. Hitzarmena Lesakako Udalarekin, Bidasoako Bide Berdearekiko loturarako	340.000	Turismoa eta mugikortasun jasangarria sustatzea
<b>HEZKUNTZA</b>			
410001 41800 6020 325100	Suspertu Plana. Ikastetxe	700.000	Patio publikoak estali behar dira eskualdeko

	berrien eraikuntza eta obrak. Ikastetxeen Plana		plubiometria handiagatik eta leku faltagatik. Igoeraren ondoren hona partidaren zenbatekoa, guztira: 7.205.401, Leitzako ikastetxe publikoetako kanpoko patioetako estalkiak sartzeko, 280.000 eskola publikoak eta institutuak partekatzen duten patioetako estalkirako; Bera, 420.000 Toki-Ona institutuko patioetako estalkirako.	
410001 41800 7609 325122	Suspertu Plana. Doneztebeko IPko kanpoko patioetako estalkia	300.000	Inguruko plubiometria handiagatik ikastetxe publikoko patioa estali beharra dago.	
420002 42120 4609 322102	COVID-19a. Hitzarmenak udalekin 0-3 urteko haurrak eskolatzeko	400.000	Horrenbestez, guztizko partida aurreikusitakoaren bikoitza da, 800.000, COVID-19aren ondoriozko premiei erantzuteko.	
<b>OSASUNA</b>				
545001 52420 1220 312203	COVID-19a Aldi baterako langileen ordainsariak	150.000	Igoera honek ahalbidetzen du 240.000 euroko partida edukitzea Tuterako oinarrizko osasun laguntzako zentroak indartuko dituzten kontratazio berrietarako.	
54600152520 1220 312203	COVID-19a Aldi baterako langileen ordainsariak	150.000	Igoera honek ahalbidetzen du 291.667 euroko partida edukitzea Lizarrako oinarrizko osasun laguntzako zentroak indartuko dituzten kontratazio berrietarako.	
54700152300 1220 312203	COVID-19a Aldi baterako langileen ordainsariak	700.000	Igoera honek ahalbidetzen du 2.660.000 euroko partida edukitzea Nafarroa Iparraldeko eta Ekialdeko oinarrizko osasun laguntzako zentroak indartuko dituzten kontratazio berrietarako.	
547001 523006020 312811	Suspertu Plana. Obrak osasun zentroetan.	600.000	Helburua da Garesko osasun zentro berriaren proiektua egitea eta Berriozarkoa handitzea. Biek 10 urte baino gehiago daramatzate zain eta presaz ekin behar zaie, leku falta dagoelako eta azpiegiturak zaharkituta daudelako.	 

<b>GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIAIA</b>			
81000181100 4609 422200	Hitzarmena Leitzako Udalarekin, MIMUKAI proiektua	70.000	Udalak eta Cederna/Garalurrek taxututako proiektu kooperatibo bat sustatzea, lantegi bat zaharberitu eta coworking gunea komunitario bat sortzeko tokiko ekoizle eta abarrekoentzat.
810001 81100 7819 422203	Hitzarmena Sakanako Garapen Agentziarekin, Dinabide zentroa	173.000	Helburua da metalezko fabrikazio gehigarriko ekipamendua erostea Dinabide zentroko Fabrikazio Gehigarriko Unitatearentzat
820001 82500 2276 425202	Energia berriztagarrietako enpresa publikoa eratzeko azterlana	25.000	Haize- eta eguzki-energia ekoizteko parke publikoen sustapena bultzatu eta kudeatuko duen entitate publiko baten beharra dago.
<b>ESKUBIDE SOZIALAK</b>			
900003 91600 4609 231510	Dirulaguntza toki entitateentzat, kontziliazio programak	200.000	Udalek programak ezarri ahalko dituzte haurrentzat, zaharrentzat edo desgaitasuna dutenentzat, ingurune seguruetan, familiei lana eta familiako bizitza uztartzen laguntzeko.
900003 91600 4609 231603	Gizarteratze Plana abiarazteko jarduketak	70.000	Igoera honekin partida 150.000 eurokoa da guztira, eta bultzada garrantzitsua emanen zaio, pobrezari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko hainbesteko premia dagoen honetan.
920000 93000 2600 231000	Esku-hartze sozialerako eta lan-baldintzen hobekuntzarako hitzarmena	1.500.000	Partida hau eta departamentuak aurreikusitako beste 1,5 milioi adingabeentzako arretarako partidan sartuta, hitzarmena hobetzeko guztira 3 milioi jarriko lirateke 2021eko bigarren seihilekorako, eta 6 milioiko zenbateko finkatua izanen litzateke 2022rako.
920005 93100 2279 231847	Desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza laguntzadunak kudeatzea	200.000	Helburua da pertsonen laguntzea bizimodu independenterako autonomia eskuratzen. Etxebizitza hauek

			intentsitate txikiko laguntza dute, aldi baterakoa edo iraunkorra, pertsonak ingurune komunitarioan bizi ahal daitezzen, senideekiko mendekotasunik gabe.
920005 93100 4609 231511	Dirulaguntza toki entitateentzat, adinekoei laguntza psikologiko eta emozionala emateko.	200.000	Udalei aukera ematea programak edo ekintzak proposatu ahal izan ditzaten, pandemia, konfinamendua, bakardadea eta beldurra zaharrengan sortzen ari diren ondorioei aurre egiteko.
920005 93100 4819 231846	Dirulaguntza Plena Inclusión elkarteari, desgaitasuna dutenentzako etxebizitza komunitarioaren	280.000	proiektu piloturako: 7-8 toki finko izanen litzuke adimen desgaitasuna eta laguntza behar handia duten pertsonentzat, eta 2 toki atseden emateko
920005 93100 7609 231848	Hitzarmena Baztango Udalarekin, zaharren egoitza	197.000	Hobetze obrak presaz egin behar dira, arreta duina bermatzeko.
920006 93300 4809 231500	Suspertu Plana, guraso bakarreko familientzako laguntzak	100.000	Familia gurasobakarren kontziliazio arazoez okerrera egin dute pandemiarekin eta aurre egin behar zaie. Igoera honekin, hona partidaren guztizko zenbatekoa: 300.000
920006 93300 4809 231507	Suspertu Plana. Kontziliaziorako laguntzak	200.000	Familia gurasobakarren kontziliazio arazoez okerrera egin dute pandemiarekin eta aurre egin behar zaie. Igoera honekin, hona partidaren guztizko zenbatekoa: 850.000
95000196100 4709 241110	Suspertu Plana. Kontziliaziorako laguntzak autonomoentzat	150.000	Autonomoen kontziliazio arazoez okerrera egin dute pandemiarekin eta aurre egin behar zaie. Igoera honekin, hona partidaren guztizko zenbatekoa: 225.000
<b>KULTURA</b>			
A20002 A2510 4709 334104	Suspertu Plana. Kultur sektoreei laguntzeko programak	500.000	Baliabide gehiagorekin lagundu behar zaie kultur gintzako sektore profesionalei, une zail hauetan.

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*



A20002 A2510 4816 334108	Suspertu Plana. Kultur sektoreei laguntzeko programak	500.000	Baliabide gehiagorekin lagundu behar zaie kultur gintzako sektore ez-profesionalei, une zail hauetan.
A20002 A2530 4609 334104	Mugaz gairdiko kultur proiektuetarako dirulaguntzak.	100.000	Kultur proiektuak sustatzea Euroeskualdeko esparruan.
A20003 A2310 4309 333106	Oteiza Museoa Fundazioa. Ahozko artxiboa	100.000	Bultzada ematea Oteiza Museoari, azken bisita parlamentarioan antzeman zen eta talde guztiek aitortu zuten premiari helduz.
A20003 A2310 7609 333100	Hitzarmena Berako Udalarekin, ondare baliabideen	65.000	Ez zen gauzatu aurreko urtean
A50001 A5410 7609 336118	Hitzarmena Uharteko Udalarekin, izotz jauregian eguzki plakak jartzeko	100.000	Trantsizio energetikoa sustatzea erakin publikoetan.
<b>JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA</b>			
Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa		10	Bulegoa abian jartzea, zuzendaria izendatu ondoren

**ZAZPIGARRENA.-** Nafarroako Gobernuak, aholku-organoekin egin beharreko kontsultak egin ondoren, Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektua onetsi du lehengo asteazkenean, 2020ko azaroaren 11n.

Aurreko guztia kontuan harturik, Nafarroako Gobernuak eta EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioak akordio hauek egin dituzte:

### AKORDIOAK

**LEHENENGOA.-** Zergen arloan aldeek honako konpromiso hauek izanen dituzte:

**a) Onura fiskalak sozietateen gaineko zergen.**

Onura fiskalak zerga politikako tresnak dira, eta helburu ekonomiko eta sozial jakinak izaten dituzte. Hain zuzen, salbuespenak ezartzen dira, tasa murriztuak, murrizketak edo

\_\_\_\_\_r

y



kenkariak zerga kuotetan, eta horrela pizgarriak edo hobekuntzak sortzen dira pertsona juridikoen errentan, eta, oro har, zerga-bilketa gutxitu egiten da. Ez da modurik egon Gobernuak 2020an azterketa edo txosten bat egin zezan Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legean jasotako zerga onurak ebaluatzeko. Beraz, adostu da azterketa hori 2021eko irailaren 30a baino lehen egitea.

### **b) Fiskalitate berdea eta fiskalitate "berria".**

Gobernuak irailaren 15erako txosten edo azterlan bat egingen du, aztergai harturik fiskalitate berdearekin lotutako zerga berriak ezartzeko aukera, edo zerga figura eta neurri fiskal berriak elkarlaneko ekonomiaren edota ekonomia zirkularraren esparruan, materialak berrerabiltzearekin edo konpontzearekin zerikusia duen orotan, horrelako jardueretarako pizgarri fiskalak emateko. Txosten horretan kontuan hartuko dira lortu beharreko ingurumen helburuak, neurrien ezarpenak ukitutako sektore ekonomikoetan izan dezakeen eragina eta lor litekeen diru-bilketaren ebaluazio zenbatetsia... Ekonomia eta Ogasun Departamentuak honako zerga hauek ezartzeko aukera aztertuko du, besteak beste: lurzorua erabilera-aldaketaren gaineko zerga, abeltzaintza intentsiboaren ingurumen eraginaren gaineko zerga, berrerabili ezin diren bilgarrien gaineko zerga, meatzaritzako erauzte jardueren gaineko zerga eta ostatu-gauen gaineko zerga.

### **BIGARRENA.- Aurrekontuen alorrean:**

Nafarroako Gobernuak 1.925.000 euroko kredituak gaituko ditu EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztuko dituen zuzenketa partzial batzuk finantzatzeko.

Zuzenketa horiek lehentasun sozialak aintzat hartuta aurkeztuko dira, eta EH Bildu-Nafarroak Nafarroako Gobernuari aurkeztutako dokumentuetan azaltzen diren planteamenduekin bat etorriko dira.

### **HIRUGARRENA.- Aurrekontu-konpromisoak**

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du honako neurri hauek garatzeko 2021eko ekitaldian zehar:

**1.- Parte hartzea.** Jakinik hurrengo ekitaldi honek ere osasun-krisiaren eta hark ekarritako ondorio ekonomiko eta sozialen zama izanen duela, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du talde parlamentarioen parte-hartze jarraiturako bideak ezartzeko, zeinetan informazioa partekatuko baita eta ekarpen eta proposamenak egin ahalko baitira, Gobernuaren erabakiak hartzeko prozesua ahalik eta partekatuena eta adostuena izan dadin.

**2.- Pentsio duinak:** Aurrekontuei buruzko Legean xedapen gehigarri bat erantsiko da; hona:

*"Xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak, aplikatzekoa den Estatuko legeria alde batera utzi gabe, sei hilabeteko epean azterketa bat egingen du Nafarroako pentsioen zenbatekoen egiazko egoerari buruz eta diru-sarreraren eta gastuen fluxuei buruz, Nafarroan pentsioen osagarri gisa jada ezarritako bide fiskalak kontuan hartuta. Halaber, eskatzen zaio kalkula dezala zenbateko eragina izanen lukeen aurrekontuetan pentsio txikienak egungo LGSraino osatzeak, hasiera batean, eta 1.080 euroraino, bigarren fase batean. Azterketa horretan egungo pentsio sistema publikoaren joerak baloratuko dira"*

Gainera, Nafarroako Gobernuak kalkulatu du zenbat diru aurreztuko den diru-kutxa publikoetan, hain zuzen ere Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 68. eta 68 bis artikuluetan jasotako pentsio txikienak osatzeko gastuan, baldin eta kotizazio gabeko pentsioak eta kotizaziopekoak % 1,8 eta % 0,9 igotzen badira hurrenez hurren, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuan jaso den bezala. Igoera horiek behin betiko onetsiko balira, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea behin betiko onestearekin batera, eta pentsioak osatzeko zerga onuretan igoera horiei esker zenbat diru aurreztuko litzatekeen jakinda, Gobernuak EH Bildu talde parlamentarioarekin batera aztertuko luke nola erabili aurrezki hori aipatu artikuluetan jasotzen diren zerga onurak igotzeko; horrek guztiak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko litzuke ondorioak.

3.0-3 urteko zikloa. Gobernuak berretsi egiten du legegintzaldi hau Haur Hezkuntzako ziklo hori duintzeko gako izan dadin hartutako konpromisoa. Horregatik, agintzen du:

-Hezkuntza Departamentuaren barruan zerbitzu bat sortuko dela, halako moldez non departamentu arteko lana bultzatu ahalko den inplikaturako eragileekin batera. Zerbitzu horrek egiturari, langileei, jantokiari eta abarri buruzko urratsak eta arau aldaketak antolatuko ditu, eta prozesurako egutegia jarriko du, Eskubide Sozialetako Departamentuaren haur eskolak Hezkuntza Departamentuaren mendekoak izatera igaro daitezzen 2021-2022 ikasturtean.

-Urratsak zehazteko lan horretan jarraipena emanen zaiola aurreko legegintzaldian hasitako hausnarketari, eta 2021ean zehar nolabaiteko erakunderen bat sortuko dela toki entitateekin batera, epe ertainean hezkuntzaren ikuspegi eta kudeaketa bateratua izateko.

- Ratioak behertzeko aurreikuspena egingen dela.

-Araudiaren aldaketa horretan, halaber, gutxieneko baldintza batzuk ezarriko dira 0-3 urteko haurrak artatzen dituzten zentro guztientzat.

- Haur eskola guztiak Nafarroako Gobernuari atxikita ez dauden bitartean finantzaketa sistema egonkor eta duina bermatuko zaiela familiei eta udalei.

#### **4.- Finantzen Nafar Institutua**

Nafarroako Gobernuak, 2019-2023 legegintzaldirako sinatutako akordioan ezarritakoaren esparruan, konpromisoa hartzen du enpresen finantzaketarako laguntza neurriak sendotzeko. Indartu egingen ditu, besteak beste, abalekin, partaidetzazko

maileguekin eta proiektu estrategikoen finantzaketarekin lotutako mekanismoak, barnean harturik arrisku kapital estrategikoko funts bat garatzea, Nafarroako giltzarri enpresen hazkundera eta sustraitzea errazteko. Horiek horrela, eta "100000 10100 4459 923900 Suspert Plana. Finantzen Nafar Institutua" partidan aurreikusitakoa gauzatzuz, 2021eko irailaren 30a baino lehen institutua sortuko da.

#### 5. - **Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa.**

Gobernuak, harekin batera legegintzaldirako akordioa sinatu zuten talde politikoek eta gure talde parlamentarioak konpromisoa hartzen dute 2021eko lehen seihilekoan zehar eraginkortasunez aplikatzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legea, Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa. Horretarako, lehendabizi, 10 euroko zuzkidura duen partida zabalgarri bat sortu da bulegoa abian jartzeko, eta bigarrenik, taldeen artean behar adinako adostasun politikoa lortuko da aurrekontuak onesteko, Parlamentuak aipatutako epe horretan izendatu ahal dezan bulego horretako arduraduna.

#### 6.- **Toki Administrazioa.**

a) Gobernuak konpromisoa hartzen du 2021eko urriaren 31 baino lehen finkatuta edukitzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123. artikulua 2. apartatuan aurreikusten diren finantzaketa-moduluen zenbatekoa, eta 2021eko ekainaren 30a baino lehen aurkezteko Toki Inbertsioen Foru Plan berriari buruzko foru lege proiektua.

b) Gobernuak konpromisoa hartzen du toki entitateak 2022. urtearen hasieran hasi ahal daitezen Toki Azpiegituren Plan berri bateko obrak egiten.

#### 7.- **Funtzio Publikoa**

Berrezarpen-tasa.

Gobernuak konpromisoa hartzen du Parlamentuari 2021eko ekainaren 30a baino lehen aurkezteko –aurrez negoziazioa eginda Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean ordezkariak dituzten sindikatuekin– 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 15. artikuluan arautzen den lanbide sustapena aldatzeko foru lege proiektua (dekretu horren bidez onesten da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina), halako moldez non sarrerako prozedura eta sustapen prozedura bereiziko baitira, horrela saihestuko baita lanbide sustapeneko lanpostuek lan eskaintza publikoetako lanpostuak kontsumitzea eta azken batean berrezarpen-tasa bi aldiz murriztea.

**LAUGARRENA.-** Nafarroako Gobernuak –bertan ordezkariak duten talde parlamentarioen bitartez– eta EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioak konpromisoa hartzen dute horretarako aurkezten diren zuzenketa guztien alde bozkatzeko, aurretiaz adostuta badaude, eta berek sinatuta ez dauden zuzenketa guztien aurka bozkatzeko, non eta ez den bestela bozkatzearabakitzen aho batez.

Jasorik uzten da, halaber, EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioak erabateko desadostasuna agertu duela honako partida hauek aurrekontu-proiektuan sartzearen kontra:


-060003 06120 4709 921500 Nafarroako ikus-entzunezko ekoizpenerako laguntza, 350.000 euro.

-060003 06120 4709 921502 Navarra TVrekiko hitzarmena, 1.300.000 euro.

**BOSGARRENA.-** Konpromiso horien ondorioz, EH Bildu - Nafarroa talde parlamentarioak konpromisoa hartzen du ezezko botoa emateko edozein talde parlamentariok aurkez litzakeen osoko zuzenketei, eta, halaber, 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua onestea ahalbidetzeko, horretarako egin beharreko osoko bilkuran. Ustez, bilkura hori 2020ko abenduaren 23an izanen da.

## **SEIGARRENA.- Jarraipen batzordea.**


Nafarroako Gobernuak eta EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioak akordio honen jarraipenerako batzorde bat eratzea adostu dute. Batzorde horrek hiru hilean behin egingen du bilera arrunta. Hemen jasotako akordio eta konpromisoak ezartzeko eta abian jartzeko prozesua kontrolatuko du, eta noraino betetzen diren ebaluatuko du.



Iruñean, 2020ko azaroaren 14an

**Sin. Elma Saiz Delgado**

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria




**Sin. Bakartxo Ruiz Jaso**

EH Bildu - Nafarroa TPko eleduna



**Sin. Adolfo Araiz Filanque**

EH Bildu Nafarroa TPko eleduna Ekonomia eta Ogasun Batzordean



**Sin. Javier Remíz Apesteguía**

Lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, berdintasuneko eta Funtzio Publikoko kontseilaria



**Fdo. José María Aierdi Fernández de Barrena**

Bigarren lehendakariorde eta Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria